

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Zer egin?

Atal honen izena “Asteari zeharka begira” bada, idazten ari naizen momentu honetan ezinezkoa zait asteak zer emango duen igartzea. Gaur hemen botako dudana sentsazioak dira analisi pausatu bat bainoago, emozioek koloreztatutako sentsazioak, iragaztea eskatzen dutenak aste honetan lehertu den egoera hau ahalik eta modu objektiboenean aztertze. Aste amaierako argazki osoak beste talaia bat eskainiko du honi guztiari neurria hartzeko.

Egoera intsurrekzionala da Katalunian. Lehen sentsazioa azelerazioarena da. Esango nuke aste honetan gauza batzuk atzean gelditu direla eta garai berri bat hasi dela Katalunian zein Estatuan. Nago prozesu independentistaren fase oso bat bukatu dela. Estatuak bide baketsu eta demokratikoetatik autodeterminazio eskubidea borrokatzeak zer prezio duen ezarri du, soberanismo katalan eta euskaldunaren hipotesi taktikoa hankaz gora jarriz, gizartearen gehiengo baten babesa demokratikoki esplizitatuz gero, Estatuak erabakitzeak esku-bidearen aldarriari erantzun demokratiko bat ematera behartua izango zela zioena. Izena jarri diote horri: sedizioa.

Astinaldi handien garaia izango da XXI. mendeko hogeigarren hamarraldia. Krisi-aron gaude, zibilizazio krisi betean: klima larrialdia, dualizazio soziala, migrazio-fluxu handiak, Europar Batasunaren krisi politikoa. Espainiak estatu arrazoiarekin eta autoritarismoarekin erantzungo dio nazioen aldarrikapen historikoei. Ezin du besterik egin. Beraz, galdera zaharrak pausatzeak garaia da: «Zer egin?». Eman diezaiozun begirada bat Kataluniak azken urteetan egin duen ibilbideari lehenik eta behin.

Izan ere, hipotesi taktikoa hankaz gora jarri izanak ez du inolaz ere prozesu independentistaren porrota adierazten. Prozesu horrek gauza asko lortu baititu izendatzeak luze joko lituzkeenak, baina, funtsean, egitasmo demokratizatzaile bat gorpuztu du, XXI. mendeko gizarte katalanaren erronkei erantzuten diena eta agenda globalari lotzen zaiona. Nazio zaharraren aldarrikapen historikoari zentzu gaurkotu bat eman dio, eta ez dago

bakarrik langintza horretan gainera: SNPk aste honetan iragarri duenez, 2020an egin asmo du Eskoziak bigarren independentzia erreferenduma.

Bide horretan lau faktore izan dira erabakigarriak: Estatuaren irain eta bidegabekeriaren kudeaketa eraginkorra, gizarte zibilaren autoantolaketa, agenda instituzionalaren eta gizarte mugimenduen arteko uztarketa, eta polarizazioaren eta artikulazioaren arteko oreka.

Uste dut XX. mendeko hogeigarren hamarraldi konplexu eta arriskutsua ondo irakurritz gero aukera lehiak izango dituela independentismoak, eta, hain zuzen, epe ertain horri begirako kudeaketa estrategikoa behar duela. Estatu bat izango du aurrez aurre, batasun estrategiko sendoarekin jokatu duena eta gogor joko duena. Eta Estatuaren batasun estrategikoak, nahitaez, tamaina bereko batasun estrategiko independentista galdegiten du.

Euskal independentistontzat ere galdera zaharra pausatzeak garaia da. Eskema zurrunez ez digute balio

Katalunian orain arte gako izan diren faktore estrategikoei gaurkotasun osoa duten arren, baten faltan gaude gu zein beraiek: bion arteko elkarlana eta batera jotzea

eta garai historikoa interpretatzen asmatzea erdia baino gehiago da. Azelerazio honetan, garaiko izpiritu bat gorpuzten ari delakoan nago: autoritarismoaren aurkakoa Altsasuko auziarekin, ekologista klima larrialdiarekin, feminista jardunaldien arrakastarekin, abertasunaren banaketaren aldekoa pentsionistekin, demokraziaren aldekoa Kataluniarekiko elkartasunarekin, eta abar. “Larrialdi demokratikoa” kontzeptua erabili du Gure Eskuk eta izpiritu hori bildu dezakeelakoan nago.

Katalunian orain arte gako izan diren lau faktore estrategikoei gaurkotasun osoa duten arren, bosgarren baten faltan gaude, gu zein katalanak beraiek: bion arteko elkarlana eta batera jotzea Estatu demofobiko autoritarioaren aurrean. •